

BERRIGARA

76. zenbakia

JARDUN Elkarte, Bergara

1995, urtarrilak 20

Keinuekin komunikatzen

OPEL VECTRA BERRIA



meit

GUTXIK EMATEN DUTE
HAINBESTE HAIN GUTXIREN
TRUKE.

OPEL BANATZAILE OFICIALAK,
REPÚBLICA AZOENAK

OPEL

10^o
URTEURRENA

TALLERES
OLA

Olabarrena Auzoa, z/g.
Tfnoak: 76 33 44 / 45 / 46
BERGARA (Gipuzkoa)

PRESTAKUNTZA PLANA

GAIA

IRAUPENA HASIERA

• WORD-PERFECT. Testu tratamendua.	40 ordu	Otsailak, 6
• WORD (Windows-pean). Testu tratamendua.	40 ordu	Otsailak, 6
• LOTUS 1, 2, 3. Kalkulo orria.	40 ordu	Martxoak, 13
• OINARRIZKO ELEKTRIZITATEA.	40 ordu	Otsailak, 6
• AUTOMATA PROGRAMAGARRIAK. Siemens. ..	40 ordu	Martxoak, 13
• KONTROL NUMERIKOA. Fresa.	40 ordu	Otsailak, 6
• KONTROL NUMERIKOA. Tornua.	40 ordu	Martxoak, 13
• KALITATE INTEGRALA.	18 ordu	Otsailak, 13
• MANTENU INTEGRALA. M.A.O.	24 ordu	Martxoak 20
• EKOIZPEN ETA KOSTUEN KONTROLA.	40 ordu	Maiatzak, 8



Miguel ALTUNA

Intsitutua

Bergara

Informazioa:
Miguel Altuna Institutua
Telf: 76 24 91 • Faxa: 76 38 41



Gipuzkoako Foru Aldundia
Ekonomia Departamendua



BERGARA
UDAL

EUSKALTEGIA
ZABALOTEGI, 13
☎ 76 44 53

Bulego orduak:

8.30-12.30

14.30-18.30

BERGARAKO UDAL
EUSKALTEGIA
Zabalotegi, 13 Telefonoa eta
Faxa: 76 44 53

OHARRA:

Otsailean, plazak

dauden taldeetan

integratu ahal izateko

matrikula epea zabalik,

urtarrilaren 23tik 27ra

bitartean

ERROTALDE JAUREGIA
20570 Bergara
Tinoa eta Faxa: 76 03 97

Argitaratzailea:

JARDUN Elkarteak.
Masterreka, 13 Bergara.
Tinoa eta Faxa: 76 08 19

Zuzendaria:

Gorka Elorza
Erredakzioa:
Eneko Azkarate
Eduardo Mendibil
Mikel Elkoroberezar

Maketazioa:

Eneko Azkarate
Eduardo Mendibil

Publizitatea:

Alex Azkarate

Harpidetzak:

Gorka Elorza

Testuen zuzenketak:

Esteban Plazaola
Maripi Laskurain

Erredakzio kontseilua:

Miguel Angel Elkoroberezar
Esteban Plazaola

Alex Labaien

Komikiak:

Bittor Rodriguez
Gorka Ortega & Jon Alvarez

Jose Martin Ezenarro

Julian Ezenarro

Alex Ugalde

Unai Azkarate

Banaketa:

Trianxangorri taldea

Tirada:

3.700 ale.

Inprimategia:

Bertu Koop. Elk. (Zubillaga. Oñati)

Copyright:

BERRIGARA

Lege gordailua:

SS 50/91

ISSN:

1130-6599

BERRIGARAK ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.



Aldizkari honek Bergarako Udalaren laguntza jaso du



Aldizkari honek Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntza jaso du



Aldizkari honek Eusko Jaurlaritzaren Kultura sailaren laguntza jaso du

Z E B E R R I D A ?


IÑIGO IDARRETA

Bergarako pelota enpresakoa

- Zer gertatzen da Bergarako Frontoiarekin?

- Ba, egia esan, harrিতa nago. Kanpoan egon naiz eta etortzerakoan prentsaren bitartez pelota mundua hankaz gora dagoela ikusten dut. *Herederos Gabilondo* enpresak eramaten du hemengo pelotalekua eta enpresa hori beste batzurekin elkartzean Empresas Unidas sortu zen. Orain gure sozio batzuek hainbat akzio erostea proposatu ziguten eta gu baja eman eta beraiek (Eskutaldea enpresa) frontoia jestionatzeko alta hartuko lukete 2016 urtera arte. Baina Empresas Unidasen barruan horren aurkako ahotsak entzun dira eta ez dakit zer gertatuko den.

- Zuek zeresana izan-



go duzue...

- Gu akordio batera iritsi ginen Eskutaldea eta Udalarekin baina azkenean, zoritxarrez, ez du aurrera egin. Gu ez gara sujeta aktiboak momentu honetan, akordioa eman arte Frontoiko titularrak izaten jarraitzen dugu. Dena den, inolaz ere ez dugu Bergarako herria eta Udala kalteu nahi. Ikusi behar.

"Pelotaren mundua hankaz gora dagoela ikusten dut. Harrিতa nago"

I T U R R I O N E T I K

Victoriano Gallastegi EAJko zerrendaburu Udal Hauteskundeetan

Dagoeneko alderdi politiko ezberdinek datorren maiatzeko udal hauteskundeetarako zerrendak prestatzeari ekin diote. Horrela, Victoriano Gallastegi Bergarako alkatea EAJko zerrendaburua izango da; HBk hiru izenen artean erabakiko du datorren asteen bere hautagaia eta zurrumurruek diotenez Maite Aristegi eta Jesus Mari Garitanok aukera haundiak dituzte aukeratuak izateko. EAK eta PSE-EEK, berriz, oraindik ez dute izenik aurreratu. Otsaila erdialdera bi alderdi horien kandidatoak ezagutu ahal izango dira. Gogoratu bestalde, IUk eta PPK ere udal hauteskundeetara aurkezteko asmoa azaldu dutela.


E S A N
D U T E

"Irizar eta Egaña, oso ezaguna den "klan bergararraren" bultzatzaileak izan dira. Madril eta Kataluniako eskuderietakoek errespetatu ditzatela lortu dute, gaztetasuna ezaugarri nagusienetarikoa duen talde honek dozenerdi bat titulu lortu baititu azken urteetan"

JUAN ANTONIO MIGURA
Kazetaria
EL DIARIO VASCO

"Euskal zirkuito batek etorkizun handia izango luke. Gizarteak eskatzen du. Gainera, motorraren mundu hau ez da elite batetara murrizten, milaka zaletu biltzen baititu. Inbertsioak ez du alde haundiegirik suposatzen kiroldegi moderno edota kultur etxe berri batek eskatzen duenarekin konparatuz eta ziur egon erabilera handia edukiko lukeela. Motorraren munduan biltzen diren zaletuek merezi dutela uste dugu "

PABLO IRIZAR, IBAN RODRIGUEZ, MARTIN EGAÑA ETA JUAN ANTONIO EGAÑA
Auto gidariak
EL DIARIO VASCO




TIMECOP

Ostirala: 22.30.

Larunbata: 17.00, 19.30, 22.30.

Igandea: 17.00, 19.30, 22.15.

Astelehena: 19.30 (Ikuslearen eguna).



EL ATAQUE DE LA MUJER DE 50 PIES
Igandea: 11.30.



REALITY BITES
Osteguna: 20.00.

Zinea

▼▼ **Jean-Claude Van Damme** aktoreak protagonizatutako azken filmea 2004 urtean girotuta dago. Orainarte heriotza gaindiezina izan bada ere, *Max Walker (Van Damme)* poliziak 10 urte lehenago hil zuten bere emaztea berreskuratu nahi izango du. Borroka hau ez zaio batere erreza gertatuko, bere ingurukoek ere zalantzan jarriko baitute *Walker*ren asmoa. **Peter Hyams** ezaguna zuzendari lanetan.

▼▼ Estreinuko filme bat igande goizeko matinalerako. *El increíble hombre menguante*ren (1958) bertsio honetan, egundoko efektu bereziak **Daryl Hannah** emakume erraldoi bat bezala aurkeztu ahal izateko. Duen izugarritzako altuera bere gizona eta aitarekiko mendekua hartzeko erabili ahal izango du...

▼▼ X belaunaldiari buruzko filmea egin dute **Winona Ryder, Ethan Hawke** eta **Ben Stiller** aktoreek. Gaur egungo gazteek bizitzaren aurrean dituzten kezak eta jarrerak azaltzen saiatu dira **Ben Stiller** beraren zuzendaritzapean. Filme honek harrera ona izan du publikoaren aldetik.

Deiak

▼ **Amodiozko gutunak.** JARDUNek antolatutako "Amodiozko gutunen III. Berrigara Lehiaketa" rako lanak aurkezteko epea ostegunean, urtarrilak 26, amaituko da.

▼ **Gurutze Mujika**ren oleo erakusketa Nahikari tabernan.

▼ **Odol ateraldia** asteazkenean 7etan Seminarioko baxuetan.

▼ **Ikastaroa.** Linguistika aplikatutako ikastaroa UNEDen martxoaren 7tik maiatzaren 6ra arte. Haur eta lehen hezkuntzako inglesaren saileko irakaskuntzan ari diren profesionalentzat. Argibidea 76 13 42 telefonoan.

Ogia

▼ **Igandea 22:** Mizpildi.

GOARDIAKO FARMAZIAK

- ▼ **Ostirala 20:** Mozos/Amezua.
- ▼ **Larunbata 21:** Camacho/Ruiz.
- ▼ **Igandea 22:** Camacho/Morales.
- ▼ **Astelehena 23:** Puy/Azkoaga.
- ▼ **Astearte 24:** Guallar/Español.
- ▼ **Asteazkena 25:** Estella/Corcuera.
- ▼ **Osteguna 26:** Mozos/Irizar.

YAZKI
UME GAZTE

Neska eta mutil

Irizar, 3
☎ 76 16 14

Ibargarai, 8
☎ 76 54 73

*Kirola egiteko
behar den guztia*
BOLINTXO

Ibargarai, 10
☎ 76 38 32

**BEHEKO
TABERNA**

**Menestra eta konejoa
dira gure berezitasunak**
ANGIOZAR Tfnoa: 76 55 74

Jaiak auzoetan

San Anton, San Paulo eta San Bixente jaiak, Sanantonabat, Ubera eta Angiozarko Parteitti auzoetan

Astelehenean hasi ziren **San Anton** auzoko jaiak jarraipena izango dute astebukaera honetan. Bihar larunbata, goizeko 12etan, txapligu eta zuzkarrabera jaurtiketa egingo da, eguerdiko ordubatean auzoan zehar txikiteoa eta arratsaldean, berriz, 4retan, VIII. Nazioarteko Mus Txapelketa jokatu da Zubiberri sagardotegian. Izenemateak 1.000 pezeta balio du eta txapelketa hasi baino ordubete lehenago egin beharko da Zubiberrin bertan. Sari bikainak izango dira. Ondoren, 6etan, txapligu eta zuzkarraberak izango dira, 7etan txikiteoa giro jator batean eta sari banaketa jarraian eta, gaueko 9etan, afari herrikoia Zubiberri sagardotegian.

Igandean, hilak 22, 8etan txapligu jaurtiketa eta kanpai jotzea izango da eta eguerdiko 12etan San Antoneko XVII. Nazioarteko Krosa jokatu da. Proba amaitu ostean salda, txorizoa eta ardoa guztientzat eta erromeria. Eguerdiko 12.30etan, berriz, herri kirol probak eskainiko dira eta eguerdiko ordubatean kaskara joku, ume jolas, txarri harrapatze etab.arre-

ko txapelketak jokatu dira. Arratsaldeko ordubete txikiteoa eta sari banaketak egingo dira eta 5etan, txapligu eta trakak erreaz, jaiet amaiera eman go zaie.

Uberan bestalde, **San Pauloak** ospatuko dira. Igandean mendi bizikleta ibilaldia egingo da goizeko 10etatik aurrera. Izenematea ordubete lehenago itxiko da eta kaskoa beharrezkoa izango da. Bi ibilaldi desberdin prestatu dituzte antolatzaileek. Eguerdian beteranoen pelota txapelketako finalak jokatu dira. Lehenbizi Agirre-Osa eta Igartua-Osa bikoteen arteko partidua izango da 3. posturako eta jarraian Muguruza-Lete eta Aldai-Gutiérrezen arteko finala. Hurrengo igandean, berriz, hilak 29, auto-kross proba jokatu da.

Eta auzo jaietkin amai-



Herri Krosa iragarri da iganderako San Antonen.

tzeko, **Parteitti-Angiozarrereko San Bixente jaiak** aipatuko ditugu. Domekan eguerdiko 12etan meza izango da San Bixente ermitan, meza ostean, ohiturari jarraituz, lursail, haizienda eta jendearen be-

deinkazioa egingo da eta ondoren erromeria Txinparta taldearekin. Erromerian salda eta txorizoa banatuko da eta Kataideko txakolinaren azken kose-txa aurkeztuko da jendearen.

Biltoki



SUKALDE ETA BAINURAKO ALTZARIAK.
DISEINU ETA KALITATE HAUNDIKOAK.
5 URTEKO GARANTIA.

SAN PEDRO PLAZA Z/G ☎ 76 34 00

PHILIPS



TEKNOLOGIA ETA DISEINUA.
TB, TURBO DRIVE-DUN BIDEOAK.
HI-FI MATCH-LINE EKIPOAK.
100 HERTZIOTAKO DIGITAL SCAM TB-K
BARRENKALE, 6 ☎ 76 25 96

dekorazioa

GAZTE ESTILOKO ALTZARIAK.
ALFONBRAK, LARRUZKO SOFAK.
DEKORAZIORAKO OSAGARRIAK.

SAN MARTIN PLAZA ☎ 76 43 51

SONY

TB, BIDEOAK, KAMARAK.
HI-FI EKIPOAK.
SUPER TRINITRON TB.

BARRENKALE, 6 ☎ 76 25 96

Gure bailararen defentsan

Gure bailararen etorkizunaren alde apostu egitea Maltzaga-Urbina autopista eraikitzearen aurka egitea da.

Bailarako errepideek hobekuntza sakonak behar dituztela onartzen dugu baina hauek arazo errealei erantzun behar diete eta beraz gure ustez, arazo hauen irtenbidea ez dago autopista bat eraikitzean, oraingo errepideen hobekuntza sakonean baizik.

Arazoi kontaezinak daude M-U autopistaren aurka egoteko: bailarako trafikoa beharrez ez erantzutea, gaur egun N-1 eta A-8/A-68 (Behobia-Bilbo eta Galdakao-Gasteiz edo Miranda) ardatz nagusietatik iragaten den nazioarteko trafikoa artifizialki erakarri nahia, ingurugiroari, gizarteari, ondare-historiko-kulturalari eta bizikaltateari egiten zaien kalte onartezina, lurraldearen ardatz banatzailea izatea, garapen ekonomikorako nahitaezkoa ez izatea, finantziatorako A-8 autopistaren peajea luzatu beharra...

Arazoi guztietatik hauek azpimarratuko genituzke:

a) Garapen ekonomikoa

"Garraiorako azpiegiturek ez dute, huts-hutsean, garapenik sortzen..." (indarrean dagoen Errepide Plan Oro-

korra).

Ekonomia ez da hazten garraioaren arabera, beste hainbaten artean faktore bat besterik ez da. Ez da egia autopista eraikitzeak berpizte ekonomikoa ekarriko duela, eta ez dira adibideak falta: urteak dira Deba Behean autopista bat daukagula eta, arazo ekonomikoa konpondu al ditu? eta, oraindik argiagoa dena, Laudioko kasua zer?

Eskandalagarri eta lotsagarria da berpizte ekonomikorako plan orokorrik ezean autopisten eraikuntza eskatzea, heldu beharreko iltze gorria bailitzan. Gure arduradun politikoez daukaten garapen eredu honek inoiz ikusi gabeko krisi ekonomikoa, sozial eta ingurugirikora eraman gaitu.

Autopista dirugaltze izugarria da. Inmorala da krisi garai hauetan hainbeste diru faraoiko eta alferrikoak egiten botatzea eta are okerragoa askoz diru gutxiagorekin beharizan errealei erantzuten dieten hobekuntzak egin daitezkeenean.

Herritarren eritziak arazoia ematen dienean bakarrik balio al die bada instituzioei?

- DEBASako "demokratek" errespetatuko al dituzte IGPen emaitzak?

- Ez A-8aren bidesariaren luzape-

nari.

- Ez autopistari.

HARAN BIZIA PLATAFORMA

Tiira biraka



UNAI AZKARATE

◆ **Udal euskaltegia**

Bergarako Udal Euskaltegian, otsailean, plazak dauden taldeetan integratu ahal izateko aukera izango da. Matrikula epea zabalik izango da urtarrilaren 23tik 27ra bitartean, 8.30etatik 12.30etara eta 14.30etatik 18.30etara. Argibide gehiago 76 44 53 telefonoan.

◆ **Bideo ikastaroa**

Kultur Etxeko Islada bideo gelak bideo ikastaroa antolatu du urtarrilaren 30etik martxoaren 30era bitartean. Klaseak arratsaldez izango dira, 17.30etatik 19.30etara. Izena emateko azken eguna urtarrilaren 27a izango da. Matrikulak 4.000 pta. balio du. Infomazioa gehiago 76 44 46 eta 76 07 53 telefonoetan.

JAIOTAKOAK

- Eukene Labaka Garamendi**
Urtarrilak 8
- Mikel Mujika López**
Urtarrilak 9
- Nahomi Estévez García**
Urtarrilak 9
- Silvia Novo Burgos**
Urtarrilak 15

HILDAKOAK

- Mercedes Gorospe**
Muruaemendiaraz
Urtarrilak 12

Udaletxearen atzekaldea berrizteko lanak astelehenetik

Zoruan adokina jarriko da lehen zegon antzera

Aurreko ostiraleko Plenoan onartu egin zen Udaletxearen atzekaldeko San Pedro kaleko urbanizazioa EAJ eta PSE-EEren aldeko eta HB eta EAren kontrako botoekin. Aipatutako proiektua 12.600.000 pezeta kostatuko da eta, asteleheneko Gobernu Batzordean erabaki zenez, Udaletxearen berrizte lanak egiten ari den Construcciones Amenabar enpresari adjudikatu zaio.

Astelehenean hasiko dira lanak

Olaso Torrea eta San Pedro Parrokia bitartean egingo diren lanak astelehenean bertan hasiko dira. Zati horretan lehengo adokina berreskuratuko da eta, era berean, txintxeak jarriko dira ibilgailuak astiroago ibili daitezen eta leku horretan oinezkoek duten arriskua murrizteko.

Udaletxearen atzekaldean egingo diren lan hauek etorkizunean herri barruan egin nahi den itxurdaketaren oinarri izango dira, izan ere herri barrua guztian adokina berreskuratuko eta oinezkoentzat bakarrik bi-



Alde zahar guztian bezala, San Pedron adokina jarriko da.

deratu nahi da. Hala ere, Xabier Gallastegi Hirigintza zinegotziak adierazi duenez, badira premia haundiagoa duten beste zenbait proiektu.

Bestalde, Udaletxeko berrizte lanak amaitzear daude. Aste honetan bertan lanean izan den grua kendu dute eta azken ikutu batzuk baino ez dira falta. Udal langileak otsaila edota martxoan pasako dira Udaletxe berrira eta, oraindik fetxarrik ez dagoen arren, inaugrazioa apirilean egin daitekeela adierazi dute udal iturriek.

HBren eskakizuna

Otsailaren 10etik 19ra Debasak egindako Maltzaga-Urbina autopistaren proiektua Bergaran izango dela eta, Herri Batasunak, data berdinetan eta Udalaren ardurapean, Gatzagako biztanleek egindako proiektua ere Bergaran izatea eskatu dio Udalari, "IGPetan onespren handiena lortu duen proposamena izan baita eta derrigorrezkoa ikusten dugulako Udalak Maltzaga-Urbina ardatzari buruzko informazio osoa ematea".

MEMESA



ARRASATE 79 42 22 ARETXABALETA

SFK

◆ **Ski irteera**

Pol-Pol Mendizale Taldeak Formigalera gazteendako ski irteera antolatu du datorren astebukaerarako, urtarrilak 28 eta 29. Prezioa 11.000 pezetakoa izango da (10.200 materiala dutenentzat) eta horren barruan bidaia, pentsio erdiarekin alojamentua, igandeko bazkaria eta erremontek sartzen dira. Ski ikastaro bat egiteko aukera ere egongo da (4 ordu, 2.000 pezeta). Irteera urtarrilaren 28an goizeko 5etan Frontoitik egingo da. Argibide gehiago 76 48 51 telefonoan.

◆ **Ibargarai eta San Pedroko merkatarien zozketak**

Ibargarai kaleko merkatariek eginiko zozketan, 19.637 zenbakia izan da saritua. Sariduna agertuko ez balitz, ordezkio zenbakia 26.524 izango litzateke. San Pedroko komertzianteen zozketan, berriz, 16.464 zenbakiaren jabeak 100.000 pta.ko eros-bale bat eskuratuko du.

◆ **Kontrol mentalari buruzko hitzaldia**

Kontrol mentaleko Silva izeneko metodoan aditua den Jose Maria Incertisek jarrera positiboa helburutzat duen metodo horren teknikak azalduko ditu Bergaran, hilaren 31n eta otsailaren 2an Miguel Altuna Institutuan. Hitzaldiak arratsaldeko sei terdian hasiko dira eta sarrera doan izango da (hitzaldi bakoitzak 3 orduko iraupena izango du). Besteak beste, autoestima edota stressa aztergai izango dira.



Beste iturri berri bat jarriko da Miguel Altuna Instituto berriaren sarreran.

Polemika Ipintza iturrirako bidea itxi egingo delako

Talde batek ondasun amankomuna dela aldarrikatzen du

Boni Laskurain pasealekuan Miguel Altuna Instituto berria eraikitzeke lanak direla eta, Ipintza iturrirako pasabidearen inguruko polemika piztu da egunotan. Matxiategiko bizilagun talde batek bere protesta azaldu du herrian kaleratutako idatzi baten bitartez.

"Ipintza bizirik" taldeak izenpe-tuta dagoen idatziaren arabera, "Eusko Jaurlaritzaren dokumentazioa kontutan izanik, bide hori zorbidea da eta beraz ondasun amankomuna. Zorbide hori beti erabili izan dugu auzotarrok udan etxeetan ura falta izan zai-gunean".

Roman Basterra da idatziaren bultzatzailetako bat eta idatzi bat aurkeztuko du Udaletxean bide horrek ondasun publiko izaten ja-

rrai dezan. Bere hitzetan "azken orduan proiektuan eginiko aldarriketetan hesi bat jarriko dela jasotzen baita".

Bertan lanean ari den enpresak azaldu digunez, berriz, bide hori ez da itxiko: "aparkamentuaren ondoan atetxo bat zabaltzea errez da eta jendeak iturriraino joateko aukera izango du. Dena den, beste iturri berri bat jarriko da Miguel Altuna Instituto berriko sarreran bertan".

Jose Maria Larrañagak, Miguel Altuna Institutuko zuzendariak, bere kezka azaldu du idatzi hori kaleratzeagatik, bere ustetan egokiena beraiengana joeta baitzen, proiektuaren inguruko informazioa zehaztasun guztiekin jaso ahal izateko.

- **Ibilgailuen Ikusketa Teknikorako (ITV) ibilgailuen azterketa**
- **Era guztietako konponketak, garbiketak...**
- **ESKAINITZA BIKAINA: 4 gurpil erosi eta 2 ordaindu!!**

Mekolalde

Mekolalde auzoa. Tfnoa: 76 59 14

A
U
T
O
A
K

LAZKANO

Oinetakoak

Barrenkale, 15
☎ 76 25 03



Argazkian, Kapirixoko azken batzarreko irudi bat.

Elosuko eremu megalitiarrak berreskuratuko ditu Kapirixok

Udala proiektu honetan kolaboratzeko asmoa azaldu du

Deba Garaiko Kultur Ondarea babesteko sortu zen Kapirixoko elkarrekin Elosu eta Sorluzeko eremu megalitiarren gaurkotze plan-gintzari ekin nahi dio datozen hilabeteetan. Hori dela eta Kapirixok dirulaguntza eskatu dio Udalarari proiektu hori burutu ahal izateko. Oraindik inolako erantzunik jaso ez duten arren, udal iturriek baieztatu egin diote Berrigarari Udala proiektuan kolaboratzeko prest dagoela. Datorren asteko Gobernu Batzardean aztertu daiteke Kapirixoren eskakizuna. Alkateak adierazi bezala, "Kapirixoren proiektua guztiz interesgarria da herriarentzat ere".

Proiektuaren arabera, Azkoiti, Bergara eta Elosuren arteko mugan dauden eremu megalitiarrak be-

rreskuratu nahi dira. Guztira, Brontze Aroko 15 bat eremu dira; horietatik 10 bat Bergarako lurraldeetan daude, bizpahiru bat Sorluzen eta pare bat Azkoitiako lursailetan. Behin terrenuko garbiketa egin eta gero, eremu megalitiarren seinalizazio burutuko litzateke, alde batetik ondarea ezagutarazteko eta bestetik inguruan ibiltzen direnengan errespetoa sortarazteko.

Horrela panel batzuk jarriko dira eremuen inguruko era guztietako xehetasunak emanez. Seinalizazioa behar den bezalako izateko Kapirixok Aranzadi Elkartearekin kolaboratzeko asmoa azaldu du, Aranzadik erabiltzen ohi dituen seinalizazio sistema berdinak edo antzerakoak jartzeko.

◆ Etxeberriaren zozketa

Etxeberria erlojudendak eginiko zozketan, 1.294 eta 7.829 zenbakiak izan dira sarituak. 1.294 zenbakiak 200.000 pta.ko eros-bale bat irabazi du eta 7.829 zenbakiaren jabeak 100.000 pta.ko beste bat. Saridunak agertu dira dagoeneko.

◆ Prestakuntza plana

Miguel Altuna Institutuak, prestakuntza planaren barne, hainbat informatika ikastaro antolatu ditu otsailetik maiatzera bitartean. Bertan, Word-Perfect, Kontrol Numerikoa, Automata Programagarriak, Oinarriko Elektrizitatea eta beste zenbait ikastaroren artean aukeratzeko posibilitatea dago. Argibide gehiago 76 24 91 telefonoan.

◆ Mariaren Lagundia

Asteazkenean, hilak 25, Mariaren Lagundiko Guraso Eskolako bigarren saioa izango da 19.00etan. Gaia honako hau izango da: "Familia, balore heziketarako gune". Saioaren ardurduna Begoña Egiluz izango da.

◆ Maite Guridiri ongi-etorria

Datorren igandean, hilak 29, arratsaldeko 8etan Plazan, ongi-etorria egingo zaio 4 urtez preso egon den Maite Guridi antzuolarrari.

◆ Idolazko zozketa

Idolazko taloia euskeraz egiteko Gabonetan eginiko kanpainaren barruan antolatutako zozketan, Maria Dolores Arbuluk eta Lurdes Etxezarretak Elhuyaren hiztegi enziklopediko bana irabazi dute.

KONDE

PANADEROKUA
 Burdiñate, 1 ☎ 76 02 57

antzinako gauzak
 dekoratzeko ideiak
Rincones
 dekorazioa
 Irala kalea z/g BERGARA Tfnoa eta Faxe: 76 52 98

Elkartasunerako lera txakurren itzulian ibilia

Axen Garitano

Axen Garitanok hilabete batez bere txakurrekin Ruandaren alde Euskalerriri bira eman dio. Pasa den ostiralean heldu zen eta batutako dirua Ruandan eskola bat egiteko emango dute.

- Nola baloratzen duzu Ruandaren alde egin berri duzuen Euskadiko itzulia?

- Pertsonalki esperientzia ona. Orokorki diru bilketan nahiko flojo. Lau miloi terdi jaso ditugu eta 10 espero genituen. Halere oraindik jendeak dirua eman dezake.

- **Gogorra izan al da hilabete hori?**

- Egia esan da, espero nuen baino samurragoa izan da.

- **Nolakoa izaten zen egun normal bat?**

- Zortziretan jaikitzen ginen, txakurrak atera euren gauzak egin zitzaizen. Gero gosalduraren ondoren goizeko 11k aldera hasten ginen martxan.



"Txakurren portaera ezinhobeia izan da, itzuli guztian zehar"

Eguerdiko ordubata aldera herriren batera joaten ginen, bokadilo bat jan eta bitartean kamisetak saltzen genituen. Ordubiak aldera berriz irtezen ginen eta bostak al-

dera, lo egiteko herrira heltzen ginen. Han gauzak saltzen jartzen ginen eta 7,30ak aldera txakurrei jaten eman eta 10,30ak aldera lotara joaten ginen.

- **Birak iraun duen bitartean Gabonak pasatu ziren. Nola igaro zenuen egun berezi horiek?**

- Gabon eguna Leren pasa genuen eta oso

"Gabon Zahar egunean solomo bodadilo bat kalimotxoarekin afaldu genuen eta oso ondo pasatu genuen"

HAU DA ZURE LAN AUKERA!!!

Etxeko langileak, mekanikoak, kamareroak, administrariak..., 185 ofiziotaraino

"LAN BILA"

LANA AURKITUKO DIZUGU. ETA, BESTALDE, ZURE NEGOZIO PROPIOA JARRI NAHI BADUZU, INFORMATU ETA LAGUNDUKO DIZUGU

Irala kalea, z/g • BERGARA • Tfnoa: 76 33 72 - Faxa: 76 57 85

gustora gainera. Zaharren egoitzan monjek afaltzen eman ziguten eta ez edo nolako afaria. Langosti-noak, urdaiazpikoa, pattea, kokotxak, bildotsa, postrea, kopa eta afalostean kalera irten ginen.

- Hurrengo eguna gogorra izango zen...

- Bai, bueno, baina ez zegoen aldapa handirik eta nahiko lasai ibili ginen. Gero ere ez zara ir tetzen hemen bezala, jai kitzen zara eta lanera joan behar duzu. Hura ere lana zen, baina egu nero zerbait berria izaten genuen.

- Gabon Zahar eguna, berriz, ez zen oso ona izan, ezta?

- Egun hori Iruñan pasatu behar genuen, baina gaizki tratatu gintuzten eta Iruña ondoan dagoen Arreara joan ginen gaua pasatzera. Han erromesen albergean pasatu genuen gaua. Afaltzeko solomo bokadilo bat kalimotoxoarekin izan genuen eta oso ondo pasatu genuen. Egun horretan ez nintzen kalera irten.

- Hiriburuetan herrietan baino harrera txarragoa izan duzuela entzun dizuegu esaten.

- Bai, batez ere Iruñan. Hara heldu eta polizia Foralari deitu genion guri laguntzeko. Etorri ziren eta ordena zutela gu Udaleko txakurtegira eramateko. Gainera Iruñatik bi kilometrotara zegoen. Hara eraman gintuzten eta harrapatu genuen haserrearekin alde egin genuen. Gero municipalen sargentoa etorri zen eta esan genion dirua biltzea zela garrantzitusena. Orduan berak esan zigun txakur barik Plaza Castillora joateko eta txakur rekin dirua biltzea zaila bada, imajinatu han plaza

erdian ezer gabe nola esplikatzen diogun jende ari Ruandaren alde diru bila ari garela.

- Herri txikietan, berriz, orokorrean harrera ona izan duzue, ezta?

- Bat aipatzearen Bernedo aipatuko nuke. Han kontzejal bat zegoen itxoiten guri, eta bere kotxearekin herriraino gure aurretik joan zen. Herrira heldu ginenean apaizak elizako kanpaiak jo zituen eta han alkateak hartu gintuen. Udalak 300mila pzta eman zigun eta gainera, herriko jai batzordeak, jaietan sobratutako 15 mila pzta eman zigun. Gauean herri guztiarekin batera afaldu genuen eta oso pozik irten ginen handik.

- Zergatik ez dira

bete hasierako planak?

- Agian ez da bete geure kulpaz, informazio faltagatik edo. Gu zuzenean Udaletara joan gara, baina agian eskoletara edo zabaldu beharko genuen informazioa. Halere hilabete batean montatu dugu guztia eta nahiko ondo irten da. Bestalde, egia esanda ETBkoak ez dira oso ondo portatu gurekin. ETBkoek egunero zerbait eman beharko zuket.

- Zuen aldetik ere, ez al da arriskutsua horrelako proiektu bat hilabete batean montatzea?

- Ba, bai. Zoratuta ibili gara, baina uste dut nahikoa egin dugula. Datoren urtean egiten badugu, beste era batera

izango da.

- Txakurak nola moldatu dira?

- Oso ondo, nik espero baino hobeto. Oso gustora nago eurekin, diarrearen batzuk edo izan dituzte, baina oso ondo bukatu dute.

- Azken egunean Bergaran izandako harrera ze iruditu zaizu?

- Oso ondo eta ez nu en espero horrenbeste jende izango zenik. Masterrekatik plazaraino jende pila bat zegoen eta oso emazionantea izan zen niretzat.

Alkatea ere denontzat ez da izango ona, baina gurekin oso ondo portatu da eta eskerrak eman nahi nizkioke. Era berean, Bergarako herriari irteeran eta helmugan eman zigun harreragatik.

"Azken egunean Masterrekatik plazaraino jende pila bildu zen. Sekulako harrera izan genuen"



Esperientzia aberasgarria izan da Arturo Rodriguez, Patxi Maestro, Axen Garitano, Eneko Eizagirre eta Julio Eizagirrerenentzat.



Gurasoak, irakasleak, monitorea eta gorren lagunak ari dira ikastaroan.

Keinuekin komunikatzen

Gorren eskolan ikastaro bat antolatu da gorren gurasoei zuzendua

Asko dira munduan erabilera murrizteko hizkuntzak, irauteko ere arazoak dituztenak. Baina badago gure inguruan beste hizkuntza bat, horiek ez bezalako berezitasunak dituena, keinuen hizkuntza alegia. Hizkuntza hau gorrek erabiltzen dute eta bere inguruko jendeak ere ikasi beharra du eurekin komunikatu nahi baldin bada. Herriko gorren eskolan erakusten da.

AransGui gorren eskolan keinuen bitartez komunikatzen ikasteko ikastaro bat antolatu dute. Bertan 30 ikasle bildu dira eta Jose Miguel Ardanaz, irakasle iruñarraren eskutik keinuen lenguaia ikasten arikuo dira astartero.

Ikastaroan gehienbat gorren gurasoak edo se-

nitartekoak ari dira, baina irakasleak, monitorea eta lagunak ere joaten dira bertara.

Keinuen hizkuntzak beste hizkuntza batzuek bezala, bere denbora behar du ikasteko eta hori bera adierazi digu Iñaki Madinabeitia AransGuiko irakasleak. "Beste hizkuntza batzu-

ek bezalakoa da keinuen hizkuntza. Lau urte inguru behar dira hizkuntza menderatzeko. Azpimarratuko nuke keinuen hizkuntza ez dela komunikazio bide bakarra, bere bitartez komunikazioa hobetzea lortzen da, baina badira gorren artean beste komunikazio sistema batzuk".

"Gorrek arazoak dituzte sentimenduak sakontasunarekin adierazteko. Horregatik oso lagungarria zaie keinuen hizkuntza"

Hala ere keinuen hizkuntza kodifikatua izatean beste sistema batzuek baino egokiagoa da. Keinuen bidez gorrek gauzak eta sentimenduak adierazi ditzake. "Keinuen hizkuntza arbitrarioki egin dago, keinu bategi kontzeptu bat adierazi nahi du. Ezin da esan zenbat keinu dauden, hizkuntza guztietan bezala, termino berriak sartzen dira eta egokitu egin behar dira keinuak. Hemen ere dialekto ezberdinak daude, eskuaren posizioaren arabera edo mugimenduaren arabera. Gertatzen dena da gorrek, beren hizkuntza bisuala denez, dialekto horiek hartzeko gaitasuna dutela eta ez dutela arazorik esateko nor den Donostiarra edo Madrildarra" esan digu Madinabeitia.

AransGuin lantzen ari diren kodea Estatu mailan erabiltzen dena da, baina ez da unibertsala, beste herri batzuetan beren kode propioa baitute.

Duela gutxira arte gaizki ikusia

Hizkuntza minoritariotza izanik bere arazoak ditu aurrera egiteko eta hori gutxi bada, urte askotan zehar txarra dela pentsatu izan da. "Urte askotan pentsatu izan da keinuen hizkuntza

lantzean, abozko bizkuntza atzeratzen zela. 1880an Milanen egindako kongresu batean erabaki zuten abozko bizkera hobe zela gorraren garapenerako eta Espainian duela gutxira arte borixe landu izan da. Baina azken ikerketen arabera abozko bizkuntza eta keinuena osagarriak dira eta gorren arteko komunikazioa aberasten du" esan digu Madinabeitiak.

Hizkuntza honetan gorrak gerritik gora egiten dituen mugimenduekin hitz egiten du, eskuen mugimenduak, begiradaren norabideak, gorputzaren espresibitateak... denak du bere esanahia keinuen bidez komunikatzeko orduan.

Hala ere, Gipuzkoan ahozko komunikazioa da oraindik gehien erabiltzen dena Madinabeitiak adierazi digunez, "abozkaterakoan gorrek euren egitura propioak dituzte eta gaizki hitzegtzen dutela ematen duen arren, euren egiturekin

abozkatzen dute. Dena den gorrek arazoak dituzte sakontasun haun-

diz komunikatu abal izateko, sentimenduak adieraztea oso zaila

gertatzen zaie eta hori adierazteko oso lagungarria zaie keinuen bizkuntza. Gorrendako garrantzitsua da beste gorrekin barremanetan izatea eta adin ezberdinekoekin, beren bizkuntza aberasteko".

Bestalde keinuen hizkuntzak sortzen ditu arazo batzuk, bere bitartez gorra jendearen aurrean "desenmaskaritzen" baita. "Inori ez zaio gustatzen bere inguruan jende ezberdina izatea. Orduan familia saiatzen da gorra berdintzen, eta momentu batean disimulatu egiten dute, baina keinuekin ezin da disimulatu eta hori askorentzat zaila izaten da. Jarrera hori pixka bat aldatu den arren, gizar-teak oraindik ez ditu

AMAIA URANGA

Gorren eskolak antolatutako ikastaroko partaide bat

- Zergatik zabilta ikastaroan?

- Nire semea gorra da eta txikitatik berari hitz bat erakusteko keinu bat behar izan du, ez ahazteko. Eta, beharrezko dut berarekin hobeto komunikatzeko. Beste era batzuk badira, baina eskuekin errazago elkar ulertzen dugu. Semeak 7 urte ditu eta beste gor batekin elkartzen denean keinuka komunikatzen dira eta eu-

ren artean ere keinu berriak sortzen dituzte.

- Zaila al da keinuen hizkuntza ikastea?

- Bai, oso zaila. Inoiz ez dugu erabili eta zail egiten da. Horretarako beharra eta denbora eduki behar duzu. Nik semearekin komunikatzeko beharrezkoa dut.

- Askori ez zaio gustatzen keinuak erabiltzea...

- Klean jendeak keinuka ari zarenean begiratu



"Nire semearekin ulertzeko keinuen beharra dut, hasieran lotsa pixka bat pasatzen den arren"



AransGui gorren eskolan inguruko herrietatik etorritako eta Bergarako 35 ikasle daude.



Ikastaroak urte osoa iraungo du, baina hezkuntza menperatzeko denbora gehiago beharko dute.

beso zabal onartzen" adierazi digu Madinabeitiak.

Gorren garapen pertsonala

Gorren eskolako ikasketak amaitu ondoren lanbide hezkuntzan egingen dute gehienek jarraipena.

Baina gure gizartea entzuleentzat eginda da-

go eta gizarteari egokitzeko gorrek egin behar duten lana gogorra dela azpimarratu digu Madinabeitiak. "Gorren garapen pertsonalak lan asko eskatzen du. Bai gorren-

tzako bai familiarentzako. Eskolak ere bere funtzioa du eta gorraren inguruak ere garrantzia handia du. Bere ingurua ez dago berarentzat egina eta orduan arma

"Gorraren ingurua ez dago berarentzat egina eta, orduan, arma batzuk eman behar zaizkio gizartean integratzeko eta gizarteari aportatzeko"

batzuk eman behar zaizkio gizartean integratzeko eta balaber gizarteari aportatzeko. Ez da lan erraza eta askotan gorra bestean paretan kontsideratzea ez da ona izaten, momentu batean konturatzen dira desberdinak direla eta orduan galduta sentitzen da. Arlo borretan zeregin haundia dago".


28 urte gorrekin lanean

Bergarako AransGuri gorren eskolak dagoeneko 28 urte bete ditu. Bertara, inguruko 20 bat herritako ikasleak etortzen dira egunero. Gipuzkoako lehen gorren eskola Donostian zabaldu zen. Ondoren, handik bi urte-tara Bergarakoa zabaldu zen eta hirugarrena, Tolosan urte batzuk beranduago. Hiru dira, beraz, Gipuzkoan gorrendako dauden eskolak.

BERRIGARA

**BERRIGARA astekariak
KAZETARI-KOLABORATZAILE
bat kontratatu nahi du**

*Interesatuok, bidali ezazue kurrikulumak
hilaren 26a baino lehen*



BENITO CANTERO

KIROL 94 *sariak*

Udak Kirol Zerbitzuak eta Berrigarak herriko kirolari eta kirol elkarteek 1994. urtean zehar egin duten lana aitortu eta saritzeko asmoz, Kirol Sariak 94 sariketa konbokatu dute.

Hiru sari banatuko dira:

1. Kirolaririk onena.

Joan zen astean aurkeztu genizkizuen eta aste honetan aurkeztuko dizkizuegun kirolarien artean irakurleen botoek aukeratuko dute. Saria, 50.000 pzta. kirol materialean izango da.

2. Kirol elkarterik onena.

Herriko berriemaleek aukeratuko dute. Saria, 50.000 pzta. kirol materialean.

3. Urtetan kirol munduan egin duen lanagatik nabarmendu den pertsona.

Herriko kirol elkarteetako eta Udal Kirol Zerbitzuko ordezkariak osatutako komisio batek aukeratuko du. Saria, trofeo oroigarri bat izango da.

Beraz, herriko kirolaririk onena zuen, irakurleon, botoek erabakiko dute.

Aurreko astean bezala aste honetan hautagaien argazki eta fitxa teknikoak argitaratuko ditugu orrialde hauetan eta, horrez gain, txartel batzuk banatuko ditugu zuek aukeraketa egin dezazuen.

Jasotzen diren txartelen artean, bi laguntzako afari bat eta Kirol Zerbitzuko karneta urte osorako zozketatuko ditugu.

Txartelak bidaltzeko azken eguna hil honen 31 izango da. Anima zaitetz, zeuk duzu azken hitza eta!!

Sariak, otsailaren 2an, osteguna, banatuko dira Kultur Etxean arratsaldeko 6.30-etan.

Aukeratu ezazu 1994ko Bergarako kirolaririk onena. Bete txartela eta bidali hilaren 31 baino lehen BERRIGARA astekarira

Aitor LARREA

18 urte ditu. Antzuolarra da, baina Lokatza ziklismo eskolarekin korritu du orain arte. Datorren urtean Iberdrolarekin afizionatuetan arituko da. Iaz, Gipuzkoako txapelketan 2. postua lortu zuen errepidean eta 3.a erlojuaren kontra. Gipuzkoako itzulian 8. sailkatu zen eta Telleriarte eta Bergarako lasterketetan, berriz, bigarren.





Iban RODRIGUEZ

22 urteko auto gidari bergararrak, 1991n ekin zion zirkuitoetan korritzeari, aurretik karreretan korritzen ibili bazen ere. 1992an, Renault Iniciacion kopan Espainiako txapeldun geratu zen eta iaz, ostera, Clio 16 balbulatako Espainiako txapelketa irabazi zuen. Gauzak ondo irtetzen bazaizkio, datorren urtean rallyetan ibiliko da.

Aitor OREGI

27 urte ditu eta urte pilo darama pelotan jokatzen. 1992ko abuztuan debutatu zuen profesionaletan. Afizionatuetan, gazte mailetan, txapelketa ugari irabazi zituen eta Biarritzen jokatzen zen Munduko txapelketan bigarren postua lortu zuen Gorostizarekin batera. Une honetan 2. mailako binakako txapelketa jokatzen ari da Kokarekin.



Joseba LOPEZ

19 urte ditu eta txiki-txikitatik ekin zion moto-krosari. 12 urterekin probetan korritzen hasi zen eta orain dela 3 urte, jubenil mailako Euskadiko moto-kros txapelketa irabazi zuen. 1994an, berriz, 3. postua lortu du senior mailan. Espainiako txapelketako proba batzuk korritu ditu. Goi mailan ari den herriko moto-krosleri bakarra da.

Jose Mari ZEZEAGA

32 urte. Askoren esanetan pelota atzelaririk onena dugu uberarra. Banaka ondoegi ez dabilen arren, binaka hainbat sari jaso izan ditu. 1990.ean, Espainiako azpitxapeldun geratu zen Unanurekin batera eta 1992an, enpresa tradizionalak antolatutako txapelketa irabazi zuen Etxanizekin. Aurten, dagoeneko, finalaurrekoetara iritsi da.



Beatriz JIMENEZ

Hamar bat urte daramatza eskalatzen eta gaur egun kirol eskaladaren atalean estatu mailako onenetarikoak da. 31 urte ditu eta 1990, 91 eta 92an kirol eskaladako Euskadiko txapelduna izan zen. Iaz, ordea, azpitxapelketa lortu zuen. Espainiako txapelketan 3. postua eskuratu zuen 1990 eta 92 urteetan. Skia ere egiten du neguan.

Ani MOLINA

30 urte ditu eta azken urteetan squash-ean eta Snowboard-ean nabarmendu da. Izan ere, iaz Gipuzkoako squash txapelduna izan genuen eta snowboard-ean, Aragoiko txapelketan bigarren sailkatu zen. Joan zen astean, bestalde, Euskadiko snowboard txapelketan hirugarren sailkatu zen. Pol-Poleko snowboard sailleko kidea da.






Agustin ARANZABAL

21 urte ditu eta une honetan etorkizunik onenetariko duen Realeko jokalaria da. Gazte-gaztetatik elastiko txuri-urdinarekin jokatu izan du eta denboraldi honetan Toshack-ek talde nagusira igo du. Harrezkerro hasierako hamaikakotetan fijoetako bat da. 21 urtez azpikoen Espainiako selekzioan ere jokatzeko du *Goikoren* aginduetara.

Amaia ARRIETA

15 urte ditu eta 5 urte zituenetik gimnasia erritmikoa egiten du. Ariznoa gimnasia erritmiko taldeko gimnastarik onenetarikoak, iazko uztailean bakarkako Espainiako txapelketan parte hartu zuen eta abenduan, taldekakoan. Gipuzkoako eta Euskadiko txapelduna izan dugu jubenil mailan. 9 urte zituenean ere Espainiako txapelketan aritu zen.




Mikel URIBESALGO

6 bat urte daramatza Arrasate Atletiko taldean Mikel Uribealgok (26 urte). Iaz lehen mailarako igoera lortu zuten eta aurten bertan mantentzea da beren asmoa. Mikelek luzera jauzia proba egiten du; bere markarik onena 6,84 m.. Iaz 5. geratu zen Euskadiko Txapelketan. Belaunaldi berriek gero eta indartsuago josten dutela dio.

Ion AGIRREBEÑA

15 urteko eskiatzaileak 9 urterekin ekin zion elur gainean maldan behera irristaka jeistean. *Alpino* modalitatean, Euskadiko txapelduna dugu infantil mailan. Bestalde, iaz, bigarren sailkatu zen Formigal-en jokatu zituen bi probatan. *Gigante* modalitatean, ostera, Aragoiko txapelketan 3. postua lortu zuen iaz.



Ander BERRAONDO

17 urte ditu eta orain dela 4 urte fitxatu zuten Realeko begiraleek talde txuriurdinean jokatzeko. Infantiletan hasi eta jubeniletan hiru urte eman ditu. Une honetan Realeko jubenil mailan ari da Carmelo Amasen aginduetara. Zentral markatzaile postuan jokatzeko du atzekaldean, eskuma zein ezkerrean.



Amaia SAMANIEGO

Bergara K.E.ko eskubaloi saileko kadete nesken taldean jokatzeko du eta Bihotz Beristain taldekideak bezala, Euskadiko selekzioarekin 2 postua lortu berri du Espainiako txapelketan. Ezkerreko hegalean jokatzeko du (1.76 zm.) eta batzuetan beste zazpi gol sartu zituen Espainiako txapelketan jokatuak bost partiduetan.



Iker MURUAMENDIARAZ

17 urte ditu eta 10 urte zituenean hasi zen pelotan jokatzeko. Pelota txapelketa ugaritan onena dela erakutsi du. Binaka, Deba Arroko txapelketa irabazi du alebin, infantil eta jubeniletan. Kadeteetan Euskal liga irabazi zuen. Banaka, Gipuzkoako eta Euskal ligako txapelduna izan da jubeniletan. Elgetako 4 t'erdiko txapelketa irabazi du.

Jasotako txartelen artean sari bikainak zozketatuko dira. Beraz, anima zaitez. Bete nahi duzun beste txartel. Zeuk duzu azken hitza!!

**Skia egiteko
txamarra,
plumifero,
forro, guante,
eta beste
osagaiak**




BOLINTXO

Kirolak

Ibargarai, 10 BERGARA ☎ 76 38 32

**Ehiza eta
arrantzarako
gaiak, eta
mendirako
behar duzun
guztia**



Legedia

Txakurren mikrotxipa

- **Aurten beharrezkoa da txakurrek mikrotxipa eramatea...**

- Horrela da, bai. Azken batean kodigo bat da, jabearen datuekin asoziatzeko. Txakurraren nortasun agiria litzateke; txakur bakoitzak zenbaki bat darama eta beharrezko datuak Albaitarien Kolejioen ordenadore batean sartzen dira. Baina helburu nagusia Estatu osorako datu base bat izatea litzateke.

- **Zeintzuk izan dira mikrotxipa jartzeko arrazoi nagusiak?**

- Batipat txakurren poblazioaren kontrola izateko ezarri da. Amorraren aurkako txertaketa kanpaina derrigorrez egiteari utzi zitzaionetik, 1988tik, ez zen txakurren zentsorik egiten.

- **Bergaran zer nolako erantzuna izan du kanpainak?**

- Bueno, nere kalkuluen arabera, dagoneko txakurren % 40ari mikrotxipa jarri zaiola esango nuke. Deba Garaian 1.000 mikrotxip in-

guru jarri dira eta 500 bat Bergaran bakarrik.

- **Mikrotxipik ez duenak zein zigor jaso dezake?**

- Zigorrak 5.000 eta 50.000 pezeta tartean daude. Baina legeak jasotzen duenez, zigor arinak, larriak eta oso larriak egon daitezke.

- **Zer egin behar da**



HUMBERTO NOGUEIRA
(albaitaria)

mikrotxipa jartzeko?

- Txakurra eta jabearen nortasun agiria ekarri. Era berean, txakurraren txerto-agiria, baldin badauka behintzat. Formulario bat betetzen da eta listo. Orainarte 1.800 pezeta balio izan du de-

"Batipat txakurren errolda kontrolatzeko ezarri da txakur danei mikrotxipa jarri beharra"



Mikrotxiparen zka. identifikatzea nahiko da jabea nor den jakiteko.

nak baina baliteke aurten zertxobait garestiago izatea.

- **Non jartzen zaio txakurrari mikrotxipa?**

- Lepoaren ezker aldean, azal azpian. Biokompatiblea da eta beste espezie danetan (zaldiekin, txakurrekin..., etab.) ere erabili daiteke. Ez du inolako erreakziorik sortzen. Jendeak ere zailak ditu ea zenbakia borratu daitekeen baina ez da horrela. Txakurrak hilabate bat betetzen duenetik aurrera jarri daiteke eta txakurra hil, saldu edo beste norbaiti ematen badiozu mikrotxipa jarri den lekuan horren berri eman behar da.

- **Lapurretetarako ere balioargarria izango da.**

- Bai, zeren mikrotxipa kentzea oso zaila da, ebaki bat egin beharko zenioke txakurrari. Mikrotxiparekin zenbakia identifikatzea nahikoa da txakurra norena den jakiteko.

- **Bestalde, zer egiten da hemen galdutako txakurrekin?**

- Txakur galduren bat aurkitzen bada, argazki bat ateratzen zaio eta txakurra Gasteizeko Udal Txakurtegira bidaltzen da. Pena bat da Mankomunitatean horrelakorik ez egotea, garantia sanitario bat da azkenean.

TOKI-ONA
Bodegoia-taberna

Eguneroko janariak / Txitxizotzak
Kazolatxoak / Txabierroak

Matxiategi, 1 Tfnoak: 76 39 53

AGOITZ

Tapizdenda

San Lorentzo, 25 BERGARA
Tfnoa: 76 18 23

ARREGI

Eraikuntza
materialeak

Biltegi Tellerian, Labegaraietan.
Tfnoa: 76 27 93

GALen auzia jarraitzen al duzu? Interesaturik zaude?



Iñigo Azkarate
28 urte, langilea

Bai. Nola amaituko den? Ez dakit, ez dut uste ezer pasatuko denik. Baten bat joango da kartzelara baina segituan irtengo da.



Mari Lurdes Alberdi
34 urte, langilea

Paso egiten dut jadanik. Aspertuta nago beti gauza berberak entzuten. Danetatiko jendea dago hor sartuta eta ez dut uste egia jakitea komeni denik.




Roberto Etxaniz
25 urte, langilea

Jarraitzen dut bai, baina azkenean jakin beharrekoa ezkutatu egingo dutela pentsatzen dut. Beren obligazioa hori da, ez da egia jakingo.



Maria Luisa Pumar
35 urte, langilea

Bai, baina gai oso konplejoa da eta hainbeste interes ezkutuko daude hor... Badirudi egia jakingo dela baina beti dago ezkutatzeko zerbaiz.



Julian Alberdi
41 urte, langilea

Bai, baina ez dut uste orain baino gehiago jakingo denik. Ez nuen uste horrenbeste jakingo zenik baina hortik aurrera pasatzea zaila izango da.



Maika Mujika
39 urte, langilea

Bai, baina ez da egia jakingo. Xa nor den? Goiko jauntxoren bat, Felipe edo inguruko bat. Dena den, sorpresa bat izan da niretzat berriz ere gai hau kaleratzea.



zumelaga
JATETXEA

IGANDETAN ZABALIK!!

San Antonio, 5
BERGARA
☎ 76 20 21

Paper pintatuak - Pinturak

A. ZANGITU

☎ 76 19 54 BERGARA
☎ 79 91 82 ARRASATE

ETXAGI
JATETXEA

AFARIAK, BATAIOAK,
JAUNARTZEAK, EGUNEROKO
MENUA, GOSARIAK,
BAZKARIAK...

Masterreka, 8 ☎ 76 53 12

LONBIDE
OINETAKOAK



Bidekurutzeta, 5 ☎ 76 10 57 BERGARA



Tertulixan

Oingo hontan pil-pilean daren berbaldi, berriketa ta tertulixen gaiñian zeoze idaztia bururatu jat. Gaur egun irrati aparatu horren bazter danetan halako pila bat topatzen dittugu ta.

Eztaikit zein dan hainbeste tertulia izatian arrazoia: informaziñua emoteko ta aztertzeko beste modu bat, entendimenduz jantzitako pertsonen iritzixa entzutia...


Honen inguruan, aspaldixan buruan darabitten bi kezka plazaratuko dittut.

Lehenengua: tertulixetan eoten dienak edozein gauzai buruz berba itteko ohitturia dauke: gobernu osaketa dala, futbol derbya dala -gaiñera deskuidatzen baza, "saltsa-bronka" haundixagua eskatzen dabe- ikusi eztaben antzerki obra bat dala, bestia dala; dana independentzia, objetibotasun eta analisi sakonen izenian! Ezta hobe berba eiñ bihar daben pertsonak gaixen arabera aukeratzia?

Bigarrena: gutxitan entzun dou hanka sartzien onarpena, hau da, autokritika. Ejenplu bat: zeñiek esaten zeban M. Conde etorkizunian eskumak bihar zeban kandidatua zala? Ja! espetxeratu ta... dana ahaztu eta ahaztu eraiñ! Lehen danok jarraitzeko moduko modelua zan; gaur, berriz, "pelotazoaren kultura" da, urrutiko intxaurrak...

Berba ittearen kontra eztaukat ezer, ezta gutxiau be. Tertulia batzuk gustora entzuten die, berri edo iritzi ezberdinak emoten dabelako, baina autokritika falta, edozein gai hartu ta edozein gauza botatzia ez jat ondo pentsatzen. Kritika ta autokritika eiñ biharko, ala?

Asis IRIONDO



Puntu eta komak

Beraiek diñoe atal honetan gai serioak erabiltzen ditugu idazle batzuk eta sasi-idazleok besteok. Sermoi itxura ere hartzen dute sarritan orrialdeotako lerroek. Munduko eta gure inguruko gertaerak kritika latzak jasotzen dituzte. Makina bat gauza egiten da gaizki Bergaran, Deba Garaian, Euskal Herrian eta munduan. Kolektibitate eta gizartearen defentsan saiatzen gara, baina norbanakoa gutxitan agertzen da. Geure buruari buruz idaztea kostatzen zaigula nabaritu dut. (Niri gertatzen zaidana ez zaio ardura irakurleari), esango duzue. Artikulu honen bukaerara heltzen bazarete, baietan seinale.

Hogeita hamar urtean beste batzuen modukoa izaten saiatu eta duela pare bat hilabete minoritario konplexua hartu dut. Eta badauzkat arrazoiak. Horra ilara. Hauteskundeetan, botua baliorik gabe lagatzen ez didatenean alderdi galtzailerren bati ematen diot. Amedo eta Dominguez gansterrak -ez bakarrak, baina bai gansterrak- direla uste izan dut urtetan -orain ere hala uste dut- baina azken asteotan bi hauek zerua irabazi dutela ematen du. Kotxeen turbo, balbula eta zaldi kontutan adi-tuak edozein bazterretan ugari topatu arren, neu zehar arlo-tea naiz gai horretan; nire kotxea eta bitzita dieselak dira. Azken helburuak bitarteko okerrik sekula ez duela justifikatzen pentsatzen dut, ez politikan, ez negozioetan, ez lanean, ez familiar, ez kirolean... baina azken helburuak bitarteko gaitzotena ere justifikatzen duela ikusten ari naiz astelehenean, martitzenean, eguaztenean, eguenean, eguakitzean, zapatuan eta domekan. Nire belaunaldiko dozena bat lagun joaten gara sarriz elizara Antzuolan; sasoi batean elizara joaten ez zena markatuta omen zegoen, baina orain kontrakoa ere sentitzen dut noizbehinka. Horiek denak gutxi balira, "puntu eta komak" erabiltzen hasi naiz. Eta horrela, mila.

Joseba LEZETA

Kizkur

**ILEAPAINDEGIA
SOLARIUMA**

Bolu, 51 Tfnoa: 76 50 32



ETXEBERRIA

ERLOJUTEGIA-BITXITEGIA

Bidekurutzeta, 16 BERGARA ☎ 76 23 94 - 76 12 65



**GAZTELU
BURDINAKI DENDA**

Mintegi, 1 Tfnoak: 76 32 48 / 76 34 50 BERGARA

SURPE

Taberna

Erdiko Plaza. Tfnoa: 76 64 97
ANTZUOLA



Argazkian, Eneko Sansinenea eta Maite Agirre anorexia eta bulimiari buruzko azalpenak ematen.

Sexualitateaz mintzatzen

Ikusmin haundia sortu dute astean zehar Kultur Etxean izandako *Sexualitatea eta Osasuna* ihardunaldiak. Bertan sexualitateak eta osasunak elkarrenganako duten eragina aztertu nahi izan da ikuspegi zabalago batetik eta horrela afektibitatea, autoestima edota anorexia eta bulimia nerbiosoa bezalako gaiak plazaratu dira. Jende ugari izan da Udalak Donostiako Emakume Elkartearen laguntzaz antolatutako hitzaldietan. Horren lekuko asteartean Kultur Etxeko aretoa toperaino bete zela **Eneko Sansinenea** psikologoak eta **Maite Agirre** medikuak anorexia eta bulimiari buruz emandakoa jarraitzeko. Datorren asteko Berrigaran gai horri buruzko informazioa emango dizuegu.

Tximistorratz berria

Asteazkenean **Santa Marinako** tximistorratza aldatu zen. Erradioaktibitatea dela eta, *Enresak* debekatu egin ditu horren moduko tximistorratzak eta beraz asteazkenean zaharra kendu (*Enresak* berak eraman zuen) eta berria jarri zen. Santa Marinako kanpandorrearen altuera zela eta (45 metro inguru), Udaletxea berrizteko lanetan erabili izan den grua eraman zuten tximistorratza aldatzeko. *Birlandaketa* honek ikusmina sortu zuen ordu horretan Santa Marinatik pasatzen ziren bizilagunen artean...



Santa Marina eleizako tximistorratza aldatzeko, Udaletxeko obretan erabiltzen ari den grua erabili zen.

LARRAÑAGA
eta ZUBIA
Banatzaileak

Errioxako ardoa, olioak, esnea, lejiak...

Martokua, 32 ☎ 76 45 94

Taberna Kafetegia
EHIZTARIAK
LOS CAZADORES

Kafea da gure berezitasuna

Zubieta, 26 BERGARA

BERGARA
Karrozeriak
Txapa - Pintura

Zubieta, 46 BERGARA
☎ 76 12 31



Taun-Taun "22ra"n

Taun-Tauneko kideek ETB-1eko "22ra" saiorako *sketch* bat grabatuko dute datorren ostegunean, urtarrilak 26. Bergarar txotxongilo taldekoek "Taun-Taun Show" lane-ko zati bat aukeratu dute programan azaltzeko, beltzek eskeintzen duten kantuetako bat alegia. Jarraian "22ra" saioko lehiakideek *sketch* bera egin beharko dute txotxongiloak erabiliz. Ez da proba erreza izango, ez... Jose Felipe Auzmendik aurkezten duen programa hau otsailaren 7an gaueko 10etan ikusi ahal izango da.

Zertan dihardute ba?



Fran Iturbe bergarar musikaria produktore eta kitarrista lanak egiten ari da astelehenean ELKAREN grabatzen hasi zen *Gozategi* taldearen lan berrian. Franen hitzetan, "erromeria giroko musika da. *Tapia eta Leturia edota Kepa Junkeraren eraginak izan ditzake baina badu bere berezitasuna. Jai-giroko musika oso alaia izango da*". Esan bezala, kitarra jotzeaz gain, produktore lanak betetzen ditu Iturbek; "musika zuzendariaren antzeko lana egiten dut. Pixkat guztia koordinatuz, musiko eta teknikarien arteko zubia nintzateke, musikoak topatzeaz arduratu naiz, baina estudioetarako lanerako taldekideak prestatzeaz...". Compact-disca eta kasetak martxo aldera kaleratuko da.

50 urte

Martin Gantxegi eta **Isabel Larrañaga** bergararrek beren urrezko eztaiak ospatuko dituzte datorren hilaren 29an. 1945eko urtarrilaren 26an ezkondu ziren **San Pedron** Isabel eta **Martin** eta osasuntsu heldu dira beren ezkontzako urrezko eztaietara. Esan bezala, urtarrilaren 29an Azpeitxi jatetxean familiartekoekin bazkaria edukiko dute fetxa hain berezia ospatzeko. Zorionak bioi eta ondo segi!!



Aldoka Maldoka
TABERNA
 Kruz Gallastegi BERGARA

Irizar, 2
 ☎ 76 14 95
JAUJA KIROLAK


• Fotokopiak koloretan
 • Publizitatedun kamisetak
 • Oihal inprimaketak
 San Lorentzo, 7 behea.
 ☎ 76 50 39

AKORT

Antonio Izquierdo

Benquerencia de la Serenan (Badajoz) jaioa, duela 25 urte etorri zen Bergarara Antonio Izquierdo (57 urte). Irala zinea inauguratu zenean akomodadore hasi zenetik hainbat lan bete ditu eta gaur egun Novedades aretoko atezaina dugu.

- Negozio ona al da zinea?
- Ke ba! Hiriburutan bai, sekula baino hobeto baina herrietan ez.
- Merkea ala garestia al da zinea?
- Ez dut uste garestia denik. 450 pezeta ez da dirua gaur egun.
- Gazteak ala helduak gehien?
- Gazteak.
- Zenbat balio du filme on bat ekartzeak?
- Segun, baina 70.000 bat pezeta.
- Lehengo ala oraingo filmak?
- Orain hobeak egiten dira.
- NO-DOa botatzen duzu faltan?
- Bai, neri asko gustatzen zitzaidan.
- Eta iragarki komertzialak?
- Hori ez da gure errua. Ez da garestia baina ez dituzte ekartzen...
- Dramak ala komediak?
- Dramak nahiago.
- Arratseko ala gaueko sesioa?
- Gauean lasaiago...




"Zinea ez da negozio ona gaur egun Bergara bezalako herrietan, hiriburuetan bai. Orain lehen baino filme hobeak egiten dira. Neri dramak asko gustatzen zaizkit. Irala aretoa eta hango pantaila ikaragarriak ziren. Zezenzalea naiz"

- Zinera bakarrik ala lagunduta?
- Hori norberaren asuntoa. Andregaija baduzu ez duzu kanpoan utziko... (barre).
- Zergatik ez duzue X filmerik ekartzen?
- Bere garaia izan zuten baina gaur ez dute arrakastarik.
- Zure filme favorittoa?
- "Aeropuerto"ko lehena.
- Eta ikusitako txarrena?
- Hainbeste daude. Italiarrak txarrak baino txarragoak izaten ziren.
- Zine aretorik politena?
- Irala inauguratu zeneko eguna daukat gogoan. Ikaragarria zen.
- Zergatik itxi zen?
- Orduan, 86an, ez zelako jenderik etortzen.
- Bergaran zein filmek izan du arrakasta gehien?
- "La fuga de Segovia"k eta El crimen de Cuenca"k (Iralan).
- Jendeak zer jaten du zinean?
- Palomitak batez ere.
- Bideo-klubera joaten zara?
- Ez, ez daukat bideorik.
- Zein afizio duzu?
- Zezenak eta lagunarteko partidak.
- Torerorik gustokoena?
- Jesulín, Finito de Córdoba, El Cordobés...
- Ortega Cano ezkonduko al da?
- Baaa! Nik uste dut baietz.
- Gonzálezek dimititu behar luke?
- Bai, aspaldi gainera.



Bizkaia Etorbidea, 1
etxeba



Tfnoa: 77 14 24

ARREGUI, E.M.



ARROZTEGIA

- AROZLAN MEKANIKOAK
- SUKALDEKO ARMAIRUAK
- HORMA ARMAIRUAK
 - ATEAK, etab.
 - TARIMAK-PARKETAK
- NEOPRENOZKO JUNTADUN EGURREZKO LEIHOAK
 - PVCzko LEIHOAK

Urteaga, 20 ☎ 76 11 73
Erakusketa: Bidekurutzeta, 38

ETXEBIZITZA

Garaje plazak alokatzen dira Burdinaten. ☎ 76 12 36/43 37.

Pisua salgai San Pedro 21ean. ☎ 76 48 08.

Pisua salgai San Migel kalean. ☎ 76 02 13.

Garajea salgai Torrekuan. ☎ 76 16 68.

Pisu bat alokatzen da Matxiategin. ☎ 76 46 15.

Pisua salgai Koldo Eleizalden. ☎ 76 56 90.

Garajea salgai Ibargarai kalean. ☎ 76 00 93.

Pisua salgai Jon XXIII enparantzan. ☎ 76 13 75.

Garajea alokatzen da Koldo Eleizalden. ☎ 76 30 10.

Pisua salgai Artzamendin. ☎ 76 10 55.

Garajea salgai Zurradero 8an. ☎ 76 13 93.

Garajea salgai Kruz Gallastegin. ☎ 76 16 13.

Etxea salgai Osintxun. ☎ 76 28 70 (eguerdiz).

Pisu bat salgai Basarten. ☎ 76 25 45 (Javier).

Garajea saltzen da Ibargarai kalean. ☎ 76 44 25.

DENETARIK

Pekines txakurkumak salgai. ☎ 76 26 92.

Egurrezko bi butaka tapi-zatu eta guzti salgai. Oso egoera onean. ☎ 76 12 86.

Braco aleman txakurrak salgai. 1994ko ekainean jaiotakoak. ☎ 76 10 79.

Trialeko Cota 335 motorra (SS-AM) salgai. ☎ 78 24 90 (Iñaki).

Lada Niva (SS-AN) eta **Ford Scort** (SS-AD) kotxeak salgai. ☎ 76 00 51.

Volkswagen Corrado kotxea salgai (SS-AG). ☎ 76 38 16 (gauzez).

Renault 19 16v. kotxea salgai (SS-AJ). 53.000 Km. ☎ 76 24 02.

Ford Fiesta SS-AD kotxea salgai. ☎ 76 46 80 (gauzez).

BBT mendi bizikletarako Rond-fork suspentsio oleoneumatikoa salgai. ☎ 76 52 31 (gauzez).

Sega Megadriveko jokoak salgai. 2.000 pezeta. ☎ 76 25 12.

Paseorako **bizikleta** egoera onean salgai. 9.000 pezeta. ☎ 76 16 51.

LANA

Ingeles klaseak. ☎ 76 22 90 (Ainhoa).

Eskoziar batek ingeles klase ordu bat emango luke gaztelerako beste baten truke. ☎ 76 30 34.

OHO eta ingeles klaseak. ☎ 76 17 18 (Jesus).

Etxebizitzak garbitzen ditut. ☎ 76 59 47 (Loli).

Neska batek era askotako lanak egingo lituzke. ☎ 75 24 47.

BBB eta LH klaseak. ☎ 76 24 31 (Eneko).

Etxeko lanak egin edota haurrak zainduko nituzke. ☎ 76 57 53 (Sonia).

Matematika eta Zientziatako klaseak. ☎ 76 06 50.

Neska bat behar da etxeko lanak egin eta haurrak zaintzeko. ☎ 76 44 08.

Etxeko lanak egingo nituzke. ☎ 76 53 21.

Etxeko lanak egin edota haurrak zainduko nituzke. ☎ 76 08 55 (Miren, gauzez).

Etxeko lanak egin edota zaharrak zainduko nituzke. ☎ 76 32 58 (Ana).

Ingeles klaseak ematen dira. ☎ 76 31 36.

Matematika finantziero klaseak. ☎ 76 05 43.

Ingeles Filolojian lizentziatuak ingeles klaseak ematen ditu. ☎ 76 17 36.

Euskarazko klaseak hartuko nituzke. ☎ 76 05 97.

Haurrak zainduko nituzke. ☎ 76 45 93.

Ingeles klaseak ematen ditut. ☎ 76 26 63.

Aranzabal

OIHALAK

Zubieta ☎ 76 11 50

MARIA ISABEL BENITO doktorea

Medikuntza eta Zirugia lizentziaduna

MEDIKUNTZA ESTETIKOA:

- Loditasun orokorra edo lokalizatua
 - Tinkotasun eza
 - Zelulitisa
- Azalaren zahardadea
 - Zimurrak
 - Etab.

Bidekurutzeta, 46 behea-ezkerra ☎ 76 52 62 (ordua eskatu)

BONOFOTOA



M. A. ELKOROBREZIBAR



Juan Azkarate

Juan Azkarate jaso du aste honetan BONOFOTOko saria, joan zen astean egindako galdera berak asmatu baitu. Argazkian agertzen ziren etxebizitzek, herriko altuenek, zenbat pisu dituzten galdetzen genizuen eta erantzun zuzena honako hau zen: **Hemezazpi, hamaika eta hamar pisu.** Beraz, aste honetako 10.000 pezetak **Juan Azkarate**ri eman dizkiogu. Zorionak!!

Argazkian ikus dezakezuen kapila, Maria Madalena dugu. Zein plazatan dago kokatua eta, aurrealdean irakur dezakegunaren arabera, zein urtetan eraiki zen?

Izena: _____ Abizena: _____ Tfnoa: _____

Saria
10.000 pzta.

Moztu paper hau eta
ekarri asteazken eguerdia baino lehen

BERRIGARA
Errotalde Jauregia Bergara



TALDEA	Punt.	J	I	B	G	G. Alde	G. Aurk.	A m u l t z o a
1. Errotagain	8	4	4	0	0	28	5	
2. Madura	4	3	1	2	0	8	4	
3. Bildurbarek	4	3	2	0	1	10	8	
4. Ozaeta	4	4	2	0	2	9	11	
5. Mongatxurra	4	4	2	0	2	10	15	
6. Ufala	3	4	1	1	2	13	14	
7. Arloteak	3	4	1	1	2	8	12	
8. Kabia	3	4	1	1	2	7	14	
9. Angiozar	2	4	2	0	2	15	23	
10. Bar Canalejas	1	4	0	1	3	8	16	

TALDEA	Punt.	J	I	B	G	G. Alde	G. Aurk.	B m u l t z o a
1. OH Zerezos	6	3	3	0	0	26	5	
2. Usoa	6	4	2	2	0	16	9	
3. Pagomendi	5	4	2	1	1	10	8	
4. Arkupe	4	3	2	0	1	24	13	
5. Etxagi	4	4	2	0	2	24	20	
6. Kayak O.J.	2	3	1	0	2	10	11	
7. Ogizun	2	4	0	2	2	13	15	
8. Uve Bikoitza	2	3	1	0	2	7	11	
9. Revienta	1	3	0	1	2	8	19	
10. Guadalest	0	1	0	0	1	0	15	

TALDEA	Punt.	J	I	B	G	G. Alde	G. Aurk.	C m u l t z o a
1. Hartu Zamak	6	4	3	0	1	31	11	
2. Nahikari Hooll.	5	4	2	1	1	14	7	
3. Kriterium	4	3	2	0	1	16	5	
4. A Ze Flaxa	4	2	2	0	0	9	5	
5. Etxenagusia	4	3	2	0	1	15	12	
6. Eri	4	4	2	0	2	11	16	
7. Soropotroak	3	4	1	1	2	9	17	
8. Amozkibar	0	3	0	0	3	4	10	
9. EH Biterrak	0	3	0	0	3	4	20	

TALDEA	Punt.	J	I	B	G	G. Alde	G. Aurk.	D m u l t z o a
1. Igandekoak	6	4	3	0	1	35	17	
2. Shaktale	5	3	2	1	0	6	4	
3. Ezinleike	5	4	2	1	1	9	13	
4. Kirolzaleak	4	2	2	0	0	14	3	
5. Ari Ari	3	3	1	1	1	9	11	
6. La Juve	3	3	1	1	1	12	26	
7. Krai	2	4	1	0	3	7	9	
8. Nekrofilikos	0	3	0	0	3	12	18	
9. Const. Bergara	0	2	0	0	2	1	5	

TALDEA	Punt.	J	I	B	G	G. Alde	G. Aurk.	E m u l t z o a
1. Los Txupeta	5	3	2	1	0	11	5	
2. Txipiron	5	3	2	1	0	7	3	
3. Pikapiedras	5	4	2	1	1	16	17	
4. Pata Negra	4	3	2	0	2	20	13	
5. Aldoka Maldoka	3	2	1	1	0	11	8	
6. Paok San Juan	1	1	0	1	0	4	4	
7. Patxaran Team	1	3	0	1	2	11	14	
8. Labegaraleta	0	4	0	0	4	7	23	

emaitzak

Angiozar-Ufala **6-5**
 Arloteak-Canalejas **1-1**
 Mongatxurra-Kabia **2-5**
 Ozeta-Errotagain **1-4**

Guadal-OH Zerezos **0-15**
 Pagomendi-Uve B. **4-0**
 Etxagi-Usoa **4-6**
 Ogizun-Kayak O.J. **4-5**

Sorop.-Kriterium **1-10**
 Hartu Zamak-Nahikari .. **7-2**
 A Ze Flaxa-Eri **3-2**
 Etxenagusia-EH Bit. **6-1**

Ezinleike-Krai **1-0**
 C. Bergara-Shaktale **0-1**
 La Juve-Igandekoak **2-19**
 Nekrofilikos-Ari Ari **5-6**

P. Negra-Labegar. **10-2**
 Aldoka-Pikapiedras **7-4**

partiduak

IGANDEA

Barruan

9.00: Uve Bikoitza-Arkupe
 Revienta
 10.00: Revienta-Usoa
 Ozaeta
 11.00: Bar Canalejas-Ozaeta
 Angiozar
 12.00: Angiozar-Arloteak
 Errotagain
 13.00: Errotagain-Madura
 Arloteak
 16.00: Ufala-Kabia
 Bildurbarek OPEL/LAM
 17.00: Bildurbarek-Mongatxurra
 Kayak Os Jardineiros
 18.00: Kayak O.J.-Etxagi
 Mongatxurra
 19.00: Amozkibar-Soropotroak
 Pata Negra
 20.00: Los Txupeta-Pata Negra
 Soropotroak

Kanpoan

9.00: Txipiron-Paok de San Juan
 Construcciones Bergara
 10.00: Kirolzaleak-Const. Bergara
 Kriterium
 11.00: Kriterium-Hartu Zamak
 A Ze Flaxa
 12.00: Nahikari Hooll.-A Ze Flaxa
 La Juve
 13.00: Ari Ari-La Juve
 Nahikari Hoolligans
 16.00: Eri-Etxenagusia
 Krai
 17.00: Krai-Nekrofilikos
 Etxenagusia

golegileak

1. Javi CAMBRONEL. 32 gol
2. Juan MATEOS. 24 gol
3. Juanjo IZUSKIZA. 23 gol
4. Aitor ELORZA. 21 gol
5. Iñigo PAGALDAI. 20 gol

SASKIBALOIA

Senior gizonezkoen taldea igoera fasea jokatzen



laz talderik osatu ez bazen ere, aurten ilusio handiz ekin diote berriz ere saskibaloia talde nagusikoek.

Bergara K.E.ko senior gizonezkoen saskibaloia taldeak lehen maila probintzialera igotzeko faseari ekin dio.

Lehen partidua Hernaniri irabazi zioten 57 eta 55eko emaitzaz aurreko astean eta aste honetan Donostiako Liceoren aurka neurtu beharko dituzte indarrak bergararrek. Alex Familiarrek zuzentzen duen taldea denboraldi ona egi-

ten ari da eta Ramon Conde saskibaloia saileko arduradunaren hitzetan, "ez dugu inolako helbururik finkatu nahi baina, era berean, igotzeko aukera aurkezten bazaigu ez digu pasatzen utziko".

Arazoak arbitroarekin

Suerte txarragoa izan du, berriz, kadete mutilen taldeak. Igoera fasea jokatzeke sailkapena eskura

zuenean, Federazioak 3 puntu kendu zizkion Ignacio Familiarrek entrenatzen duen taldeari Arrasaten jokatutako partidua batean amaiera baino lehen alde egiteagatik. Ramon Condek azaltzen digun bezala, "arbitro harekin arazoak izan ditugu aspalditik. Aipatutako partidua horretan teknika bat adierazi zigan eta entrenadoreak ekipoa erretiratzea erabaki zuen eta kendutako 3 puntu

horiengatik ezin izan gara burrengo faserako sailkatu".

Azkenik, Javier Martin Romeroren neska gazteen taldea ez dabil batere fin aurtengo denboraldian. Ramon Conderen ustetan, "aurtengo transizio denboraldia izan daiteke, lauzpabost kadeterekin jokatzen ari baitira eta horrek alde handia suposatzen du honelako kategorietan. Nabiz eta zenbaitetan jipoiak jasaten ari diren, datorren denboraldirako oso baliogarria izango zaie partidua hauetakoa esperientzia".

Indarra berreskuratu

Ramon Condek aipatzen digun bezala, "orain urte batzuk saskibaloiak berrian zuen indarra berreskuratu nahi dugu poliki poliki. Hori lortu abal izateko harrobiarekin lan egin nahi dugu, aldi berean harrobi horren ispilu izan nahi den senior talde bat izanez. Horrela, talde gazte bat osatu dugu eta hiruzpalau urtetan elkarrekin jokatzea da asmoa".

Ez dute zalegoaren artean interesik pizterik izan. "Partiduetara ez da jende gehiegirik etortzen. Egia esan, ordua ere ez da aproposena, larunbat arratsaldetako lehen orduan jokatzen baitugu baina benetan laguntzen gaituen jendea hor dago. Ea jendea saskibaloia ikustera etortzen hasten den".

MUGICA

GOXOTEGIA



Artekale, 3
☎ 76 10 34

- Pastelak
- Errellenoak
- Tostoiak
- Tartak

DENA

100etik

ZURE OPARIENTZAKO

Simon Arrieta, 3

SIRIMIRI

jatetxea

PINTXO BEROAK,
EGUNEKO MENUA, KARTA.

Barrenkale, 3 ☎ 76 59 19

Mendiko bizikleta lasterketa jokatu da igandean Uberako zelaietan



Mendi-bizikleta txapelketako lasterketa ordezkatu du, aurreko urtean arazo batzuk izan baitziren txapelketa horren bultzatzailearen aldetik. Beraz, antolatzaileek izaera popularragoa duen ibilaldia antolatu nahi izan dute.

Uberako San Paulo jaien barruan, igandean mendi-bizikletako ibilaldia iragarri dute bertako Jai Batzordeak eta Lokatza Ziklismo Eskolak. Bertan nahi duten zaletu guztiek parte hartu ahal izango dute. Ibilaldia goizeko 10etan emango zaio hasiera eta izenematea ordubete lehenago zabalduko da. Kaskoa beharrezkoa izango da partaide guztientzat. Antolatzaileek bi ibilbide ezberdin prestatu dituzte iganderako. Proba honek iaz jokatu zen Euskadiko

Le Mansera

Aitor Zabaleta bergarar kotxe gidariak "Le Manseko 24 orduak" proba famatua korritzeko asmoa du aurten. Munduan aski ezaguna den proba hori ekainaren 18an jokatu da eta Aitorrek taldea osatu lezake **Andres Vilariño** eta **Luis Chillida** donostiarr gidariek. Parisetik gertu dago **Le Mans** eta bertako proba automobilismoko lasterketarik mitikoenetarikoa da. Gidari ezagun askok korritu izan du Le Mansen eta zineak ere proba gogor horren inguruko filmeak eskeini dizkigu. Ea Aitorrek eta bere lagunek ekipoa osatu eta beren maila azaltzeko aukera izaten duten...



luz kanariar irletan zehar ibili ondoren, Le Manseko 24 orduak korritu dezake Aitor Zabaletak aurten.

KIROL KARTELDEGIA

► **Futbola**
Bergara-Roteta
Preferente maila.
Igandea, 15.45. Agorrosin.
Bergara-Santo Tomas
Lehen mailako jubenilak.
Larunbata, 15.30. Ipintza.
Bergara-Elgoibar
Lehen mailako kadeteak.
Larunbata, 17.15. Ipintza.
Bergara-Dunboa
Emakumezkoak
Igandea, 11.00. Ipintza.

► **Eskubaloia**
Bergara-Lakua
Kadete neskek.
Larunbata, 16.45.
Bergara-Lakua
Jubenil mutilak.
Larunbata, 17.45.
Biak Kiroldegian.

► **Saskibaloia**
Bergara-Etxadi
Jubenil mutilak
Larunbata, 12.15.

► **Pelota**
AFIZIONATUAK
Bergara-Zaramaga
Juniorrak banaka
Larunbata, 18.30. Osintxu.

PROFESIONALAK
• Salaberria eta Beloki /
Eugi eta Elkoro (txapelk.)
• Tolosa eta Imaz /
Koka eta Oregi (txapelk.)
• Kalonge eta Errasti II /
Badiola II eta Galardi
PALA TXAPELKETA
II. jardunaldiko partiduak,
larunbatean, 14.00etan
Osintxun.

Atsedeen zentrua
LOKARTU
Koltxoi-denda
Orain SORALUZEN

LARREA
TABERNA
Kale Barren, 17
ANTZUOLA

ZUBIETA
elektragintza
MOTORREN BOBINAKETA
ERA GUZTIETAKO INSTALAKUNTZAK
Kruz Gallastegi, 2 behea
☎ 76 23 48



Zubixaurren

Erretratuko gizonak 1946xan, Zubixaurre 5ian zauan perratokixa kendu eta "Sociedad Recreativo-Taurina San Migel-Pe" sortu zebenetako batzuk die (fundadoriak berrogetamar izen zien eta lelengo presidentia, Esteban Aiausti). Izen hau, orduko erregimenak inposautakua da eta gaur egun San Migel-Pe da bere izena. Hala be, "taurina" izete horrek, urtero gabonetan torero baten felizitaziñua jasotzia ekarri dau urtetan.

Lelengo ejaapa honen ostian, Zubixaurre 19ra jun zien, lelengo ortua eta gero egurren sekaderua zauan leku haretara eta gaur egun bertan jarraitzen dabe.

Zubixaurko jaixen eta soziuan egunaz gaiñ, San Inazio eguna da soziedadekuen egun gogokuena. Eta akordatzien die, Zubixaurren kalera mahaixak eta biharrezkuak zienak etara eta zela, kale erdixan bazkaldu eta jokuak eitten zittuen.

Zutik ezkerretik eskumara: Esteban Atxuriondo (Goian Bego), Blas Agirrebeña (G.B.), Boni Iraegi, Antonio Murga (G.B.), Luki Garitagoitia (G.B.), Bixente Barrutia (G.B.).

Makurtuta: Fernando Agirre (G.B.), Anton Pagaldai (G.B.), Moises Bikuña (G.B.), Andres Agirre (G.B.), Jose Jabier Barrutia (umia).

Felipe Iñarra

Deco-Textil ZANGUITU Alfonbrak

- ETXERAKO LENTZERIA: edredoiak, funda nordikoak, izarak, toailak, etab.
- ALFONBRA NAZIONALAK ETA EKIALDEKOAK
- BISILOAK, TAPIZAK, etab.

Herri Lagunak 3 eta 5 BERGARA

☎ 76 08 69

BESTE PREZIOEKIN EZER IKUSTEKORIK EZ



*Trento
eta Siena*

450 saltegi baino gehiago dituen Estatuko
lehen erakunde optikoak bakarrik eskain
diezazkizuke betaurreko
bildumarik eskusiboenak
2.850 pezetatik aurrera.
Eta garantia guztiekin, jakina.

MULTIOPTICAS J. LARRAÑAGA

ZERBITZU OPTIKOETAN 1 Zba.

Ibargaray, 16 - BERGARA
J. Carlos Guerra, 1 - ARRASATE
J. M. Baradiaran Enparantza, s/n - ORDIZIA

ELKARR
ELEKTRAGINTZA, C.B.



Mota guztietako instalazioak



76 00 00

**Koldo Eleizalde, 8.
BERGARA**



BERGARAKO OSASUN Gida

ALBAITARIAK:

- ETXEBERRIA Julio (Granjako animaliak) ☎ 76 43 29
- ETXEBERRIA Julio (Deba Garaiko albaitari ofiziala). Telefono mobila. ☎ 908 77 17 32
- IRASTORZA BENGEOA Sabin (Granjako animaliak) - Iribar baserria ANTZUOLA. ☎ 76 63 46
- NOGUEIRA Humberto (BALDANA klinika). 90 8 876 847 - Koldo Eleizalde, 28. ☎ 76 27 97

ANALISI KLINIKOAK:

- LABORRA Isabel - Oxirondo 4, 1.B. ☎ 76 32 06

BARNE MEDIKUNTZA:

- IRIGOYEN Victor - Oxirondo 4, 1.B. ☎ 76 32 06

DENTISTAK:

- ASTIAZARAN SOLOZABAL - Iparragirre, 1 behea. ☎ 76 27 95
- BERGARA HAGIN KLINIKA - Bidekurutzeta 6, 2. ☎ 76 05 77
- GOROSABEL J. Alberto - Fraiskozuri, 5 behea. ☎ 76 56 88
- IRIARTE Idoia - Artekale 1, 1.C. ☎ 76 01 65
- SUDUPE Felipe - Matxiategi, 18 behea ezk. ☎ 76 07 66
- GIPIZKOAKO ESPEZIALITATE ODONTOLOGIKOETARAKO ZENTRUA, E.M. - S. Arrieta 3, 2.B. . ☎ 76 38 54

FISIOTERAPEUTAK:

- ARZAK Miren (Reeducacion Postural Global) - Masterreka, 7 4.C. ☎ 76 43 71

GINEKOLOGOA:

- SERRANO Doktorea - Ramon María Lili. ☎ 76 59 39 - 72

MASAILARIAK:

- AZPEITIA Irune - Telesforo Aranzadi 1, 2. ☎ 76 14 08
- CASANELLAS Jabier - Boni Laskurain 5, 2.E. ☎ 76 03 78
- GIARIZU - Boni Laskurain, 3 behea. ☎ 76 35 71
- MARTINEZ Luis Jabier - Masterreka 7, 3.A. ☎ 76 51 18

MEDIKUNTZA OROKORRA:

- ARCINIEGA Julio - Boni Laskurain 3, 1.B. ☎ 76 37 50

LARRUAZALAREN GAIXOTASUNAK:

- ARISTONDO F.J. (Gaitz benereok) - Barrenkale, 16 1 ☎ 76 18 81

PEDAGOGOA:

- IZETA Maribi (Gabinete psikopedagogikoa: logopedia, psikomotrizitatea) - S. Arrieta 3, 2.E. ☎ 76 26 42

PODOLOGOAK:

- ALTUBE Eurne - Simon Arrieta, 2. ☎ 76 07 84
- AZPIAZU Arantzazu - Herri Lagunak, z/g. ☎ 76 41 32

PSIKIATRA:

- GALLASTEGI Pablo - San Martin Plaza 2, 1.ezk. ☎ 76 26 64

PSIKOLOGOAK:

- FERNANDEZ Jose Ramon (Psikologo klinikoa) - Ramon María Lili, 2. ☎ 76 59 72
- PSIKOPEDAGOGIA ZENTRUA (Logopedia-foniatria, psikologia, psikomotrizitatea). ☎ 76 14 80
- URKAREGI Pakita (Psikologo klinikoa). ☎ 76 53 13
- ZUBILLAGA Marisa (Psikologo klinikoa). ☎ 76 30 76